

Azterketa-eremuen gida

Cristóbal Balenciaga Nazioarteko II. Biltzarra

Getaria, 2025eko urria

CRISTÓBAL BALENCIAGA MUSEOA

CRB

Cristóbal Balenciaga Nazioarteko Biltzarraren bigarren edizioak gonbita egiten du Cristóbal Balenciagaren bizitzaren eta lanaren inguruan ikertzeko, diziplinarteko ikuspegi batetik, haren ibilbide pertsonala eta profesionala zedarritu zuten testuinguruetan sakontzeko. Jarraian, interes-eremuen inguruko laguntza-gida bat aurkezten dizuegu, baina beste ikerketa-ildo batzuk ere onar daitezke.

Moda eta diseinua

- Balenciagaren berrikuntzak. Aurrekari eta testuinguru estetikoak. Oinarri teknikoak.
- Balenciagaren bildumen bilakaera teknikoa eta estetikoa. Piezen azterketa eta konparazioa.
- Beste jostun batzuek Cristóbal Balenciagaren lanean izan duten eragin teknikoa eta estetikoa.
- Bildumen sortze-prozesua eta egikaritzea. Cristóbal Balenciagak kudeatutako etxeetako lantaldeak. Arduradun nagusiak.
- Balenciagaren egoitzetako manikiak. Haien historiak eta lekukotzak.
- Diseinuen zirriborroak eta ilustrazioak. Tipologia. Haien egiletza eta sortze-prozesuan duten esanahia.
- Bezero partikularrak: haien gustuak, testuinguruak eta Balenciagan egindako erosketak. Kasuen azterketa.
- Balenciaga, beste marka batzuen lizentziaduna (1917-1936)
- Balenciagaren lizentziadunak munduan. Fabrikatzaileak eta saltoki handiak. Establezimenduak eta saldutako piezen azterketa.
- Balenciagaren bildumetako ehunak. Hornitzaileen inguruko ikerketa.
- Kolorearen azterketa Balenciagaren bildumetan. Ehun lisoak eta estanpatuak. Balenciagaren bildumak garaiko joeren testuinguruan, kolore eta estanpatuei dagokienez.
- Balenciaga markako osagarriak. Diseinua. Hornitzaile, fabrikatzaile eta lizentziadunen inguruko ikerketa.
- Balenciagaren bildumen jasangarritasuna. Elementuen berrerabilera. Kasuen azterketa.
- Balenciaga markako lurrina. Fabrikatzaile eta lizentziadunak munduan.
- Balenciaga prêt-à-porter munduan sartzea. Diseinatutako piezak
- Balenciaga eta gizonezkoen modaren diseinua
- Balenciagaren diseinuen legez kontrako kopiak. Kasuen azterketa.

Historia eta kultura

- Alderdi biografiko eta sozialak: familia eta adiskideak.
- Balenciagaren testuinguru kulturala. Eraginak haren obran.
- Jantzi historikoak Cristóbal Balenciagaren obretan.
- Cristóbal Balenciagaren liburutegiko liburu eta aldizkariak. Eraginak haren obran.

Ikusizko arteak eta sormenezko testuinguruak

- Balenciagaren garaiko joera artistikoak. Eraginak haren obran.
- Artistekin zuen harremana. Elkarrekiko eraginak.
- Cristóbal Balenciaga artearen, altzarien eta dekorazio-objektuen bildumagile.
- Cristóbal Balenciagaren obrak haren garaiko ilustratzaile eta argazkilarien ekoizpenean.
- Cristóbal Balenciagaren obrak zineman, antzerkian eta operan.
- Cristóbal Balenciagaren obrak 1968aren ondoren fotografiatu eta marraztea.

Arte ederrak eta zaintza-azterketak

- Cristóbal Balenciagaren obrak zaharberritu eta kontserbatzea. Kasuen azterketa. XX. mendeko goi-mailako jantzigintzako piezen kontserbazioan hobekuntzak egiteko esperientziak.
- Balenciagaren obraren digitalizazioa eta 3D modelizazioa
- Cristóbal Balenciagaren obraren mundu osoko bilduma publiko eta pribatuaren azterketa.
- Cristóbal Balenciagaren piezen autentifikazioa eta katalogazioa. Etorkizuneko katalogazioetarako esperientziak.
- Cristóbal Balenciagaren obrak enkantean. Bilakaera.

Hezkuntza eta ondarea

- Cristóbal Balenciaga, jostuntzako lanbidean maisu. Langileek haren egoitzetan ikasitakoaren lekukotzak.
- Cristóbal Balenciaga moda-diseinatzaileen prestakuntzan. Haren teknika eta estetika ikasi eta aztertzea barne hartzen duten ikaskuntza-planak. Modan eta diseinuan kalitatezko ikaskuntza bat lortzeko esperientziak.
- Balenciagaren ondarea modan: haren jarraitzaileak. Cristóbal Balenciagaren berrikuntzak moda garaikidean.

Ekonomia eta zuzenbidea

- Balenciagaren enpresak Donostian, Madrilen,artzelona eta Parisen (1917-1968). Enpresa-jardueraren lege-esparruak.
- Espainiako eta Frantziako 1917-1968 aldiko ziklo ekonomikoak eta Cristóbal Balenciagaren enpresak. Haren negozioetan eragin ahal izan zuten politika ekonomiko, monetario eta fiskalen azterketa.
- Cristóbal Balenciagaren enpresen nazioartekotzea. Herrialdekako azterketa.
- 1917-1968 aldian indarrean zeuden jabetza intelektualeko eta patenteen arloko eskubideen nazioarteko legedia, Cristóbal Balenciagaren negozioetan eragina izan zuena. Auziak.
- Cristóbal Balenciagaren enpresetan lan egitea. Balenciagaren negozioetan aplikagarria zen laneko legedia (1917-1968).
- Cristóbal Balenciagaren enpresak gerra-garaian. Espainiako Gerra Zibila eta mundu-gerrak.
- Cristóbal Balenciaga eta Parisko Goi-mailako Jantzigintzako Ganbera Sindikala.
- Cristóbal Balenciaga eta Espainiako Goi-mailako Jantzigintzako Kooperatiba.

Arkitektura eta dekorazioa

- Cristóbal Balenciagaren egoitzak. Guneen azterketa. Zaharberritzeak.
- Balenciagaren etxebizitza partikularrak. Guneen azterketa. Zaharberritzeak.
- Balenciagarentzat lan egin zuten arkitekto eta dekoratzaileak. Testuingurua eta eraginak.

Marketina eta komunikazioa

- Marka-irudia. Cristóbal Balenciagak sortutako marken diseinu grafikoa.
- Modelo eta osagarrien paketatzea.
- Balenciagaren marken publizitatea (1917-1968).
- Cristóbal Balenciaga modako prentsan. Balenciagaren bildumei buruzko kronikak prentsa espezializatuan eta espezializatu gabeen. Bilakaera eta konparazioak.
- Cristóbal Balenciagaren desfileak. Haren garaiko beste jostun batzuekiko aldeak eta antzekotasunak.
- Cristóbal Balenciagaren moda haren egoitzetatik kanpoko desfile eta ekitaldietan.

Filosofia, soziologia, balioak

- Goi-mailako jantzigintzaren, eskusibotasunaren eta luxuaren esanahiak XX. mendean. Bilakaera eta aldaketak. Testuinguru historiko eta soziologikoa Cristóbal Balenciagaren modaren ikuspegi garaikide baterako.
- Cristóbal Balenciagaren estetikaren oinarri kontzeptualak: emakumea eta gorputza, dotorezia eta edertasuna, arruntasuna eta sinpletasuna, berritasuna eta iragankortasuna, etab. Beste sortzaile batzuekiko aldeak eta antzekotasunak.

Aldamar Parkea 6
20808 Getaria
T +34 943 008 840
info@crislobalbalenciagamuseoa.com
www.crislobalbalenciagamuseoa.com

B

CRISTÓBAL BALENCIAGA MUSEOA

